

"Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea."

(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua)

"Toda persona tiene derecho a la vida, a la libertad y a su seguridad personal."

(Artículo 3 de la Declaración Universal de Derechos Humanos)

ETarik EZ

ETA NO

Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 25ekoa. Horren bidez, Bastidako Udalari gomendatzen zaio interesatuta dagoen orori aukera eman diezaiola Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusi eta egokitzeko prozesuan benetan parte hartzeko.

Aurrekariak

1. Torrolate plataformak kexa aurkeztu zuen Bastidako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren izapidetzeari buruz, eta golf zelai baterako aurreikusitako kokapenari buruz.

Plataformak formazko eta funtsezko hainbat kontu aipatu zituen hirigintzako dokumentu hori izapidetzearekin erlazionatuta. Alegazio idazki ugari aurkeztu zituzten Aurrerapena jendaurrean egon zen aldian; Aurrerapena 2006ko martxoaren 16ko bilkuran hala adostuta onartu zen. Erreklamatzailleen ustez, alegazio idazki horiei ez zitzaien jaramonik egin 2006ko uztailaren 17ko osoko bilkuraren akordioan. Honen bidez, aurkeztutako iradokizunei erantzun zitzairen, horiek Plana idazten ari zen taldeari bidali zitzaizkion eta plangintza orokorraren dokumentua prestatzeko agindua eman zen.

Torrolate plataformak adierazi zituen kontuak honela laburbil ditzakegu:

- Aurkeztu zituzten alegazioei dagokienez organo eskudunaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea, baita berrikuspen espedientea izapidetzeko fasean ere.
- Biztanleek benetan parte hartzeko eskubidea, gutxienez, iritziak alderatu ahal izateko eta hori espedientean jasota geratzeko.
- Aurrerapenari dagokion Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterlana (IEA) jendaurrean ez jartzea.
- Hasieran onartzeko agiria prestatzeko irizpide eta helburuei buruzko erabakian IEAren Aurretiazko Txostenaren edukia aintzat ez izatea eta hartutako erabakia ez arrazoitzea.
- Guztiz Udalarena den kapitalarekin sortutako merkataritzako enpresa zalantzan jartzea. Kapital hori udal jabetzako lurrek eratuta dago eta lur

horiek, halaber, sozietate anonimo bati eman zaizkio, Udalak izenpetu dituen akzioen % 20rekin. Gainera, etorkizunean golf zelaia eta dagokion bizitegi eskaintza izango dituen zonan Udalak finkak eskualdatzeko eragiketetan parte hartu izana ikertzeko ere eskatu dute.

Azken atal honi dagokionez, ondorengo akordio hauek hartu behar dira kontuan:

- Zegozkion izapideen aurretik, 2005eko urtarrilaren 21eko osoko bilkurak hartutako akordioaren bidez, “Labastida Gestión Municipal S.L.” sozietate publikoa eratu zen, udal jabetzako lurak ekarrira eratutako kapital sozialarekin.
- 2005eko otsailaren 14ko akordioa; horren bidez, tokiko sozietate publikoko batzar orokorrak “San Ginés de Labastida S.A.” sozietatean parte hartzea onartu zen, akzioen bidez, eta, horren truke, udal sozietatearen jabetzako ondasun higiezinak ekarrira.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, planteaturiko gaiei buruzko informazio egokia eskatu zion Arartekoak Udalari, kexa behar bezala izapidetzeko xedez.

Bastidako Udalak egindako informazio eskaerari buruzko erantzuna bidali zigun, baita kexan aipatutako kontuen inguruan espedientean zegoen dokumentazio jakina ere.

Erantzuneko eta aurkeztutako dokumentazioko beste alderdi batzuetara itzultzearen kaltetan izan gabe, atal honetan jasota utzi nahi dugu egileek prestatu zuten alegazio eta iradokizunen txostena (2006ko ekainaren 23koa) eta Bastidako Udaleko arkitekto aholkulariak egindako proposamen txostena (2006ko uztailaren 7koa), 2006ko uztailaren 17ko osoko bilkurako akordioaren oinarri izan zena.

Zehazki, egileek Torrolate plataformaren bi alegazio aztertu zituzten, hots, honakoak:

- **2. iradokizuna:** bertan, plataformak Arau Subsidiarioak berrikusteko prozedura etetea proposatu zuen, jarduera jakin batzuek iraun bitartean, besteak beste, honakoak:
 - o Golf zelaia bizitegitarako 1. sektorea osatzen duten finkak eskura daitezen bultzatzea.
 - o Sektore horretan kokatutako udal lurak lagatzea.

- Egingo den golf zelaia ureztatu ahal izateko Konfederazio Hidrografikoari Ebro ibaitik ura hartzeko baimena eskatzea.

Alegazio hau aurkezteko arrazoia izan zen plataformaren ustez, jarduera horiek burututa, Udalak ordezeko aukeretako baten alde egiten zuela, aurrerapen fasean aurkez zitezkeen antolamendu aukera posibleen analisisia egin baino lehen, eta, beraz, horrek eztabaida bera eta hartzen ziren erabakiak baldintzatzen zituela.

Horri dagokionez, egileek txostenean adierazi zuten ez zela Aurrerapenaren aldeko iradokizunen idazkia, baizik eta udal jarduera jakin batzuen aurkako kritika. Horregatik guztiagatik, idazkia Udalbatzari bidaltzea proposatu zuten, horren arabera jardun zedin.

- **10. iradokizuna:** egileek horren inguruan adierazi zuten, funtsean, izaera politikoa zuela. Horrela, taldeak dio iradokizuna *“golf zelaia eraikitzea Bastidaren etorkizunerako egokia ez dela pentsatzetik abiatzen dela (inola ere halakorik frogatu gabe). Argi eta garbi politikoa den jarrera horretatik abiatuta, zeharka alderdi teknikoak aipatzen dituzten arrazoibideak erabiltzen dira.”* Hona hemen alderdi horiek:
 - Ez da beharrezkoa, ezta komenigarria ere, indarreko plangintza berrikustea.
 - Gehiegizkoa da Planaren Aurrerapenak proposatutako antolamenduaren lurzoru kontsumoa.
 - Aurrerapenak proposatutako golf zelai berriaren kokalekuak ez du ekipamendua garatzeko beharrezko ahalmenik.

Ondorioz, adierazi dute ez dela bidezkoa txostenean gogoeta politikoak egiten hastea; horiek, edonola ere, ondorio horietarako demokratikoki aukeratutako organoen eskumena dira. Hortaz, txostenean, aipatutako alderdi teknikoak bakarrik aipatzen dira. Horrela, txostenak honela dio:

- Lau problematika garrantzitsuenak aipatu dituzte, baina gehiegi zehaztu gabe; problematika horiek egingo den berrikuspena egitea aholkatzen dute.
- Gaineratu du, udalerrian golf zelaia jartzeko nahiaren aurretiazko baldintzatik abiatuz gero (izaera politiko garbia duen erabakia), kalifikatutako lurzoruaren azalera ez dela gehiegizkoa.

- Aurrerapenean, Lurralde Plan Partzialak ezarritako lurren oinarritzko ahalmena justifikatzen duten aurretiazko dokumentu teknikoak onartzen dira.
- IEAk proposamenen ingurumen eragina onargarria izango dela bermatzen du, nahiz eta bidezko neurri zuzentzaileak hartu behar izango diren.

Hortaz, idazkia gaitzestea proposatu du bertan aipatutako alderdi teknikoiei dagokienez; ez du, ordea, iradokizunen idazkiko alderdi politikoetan sartu nahi (edukiaren gehiengoa hala izan arren), ez baitagokie egileei taldeari balorazioak egitea.

Bestalde, Udaleko arkitekto aholkulariak iradokizunak onartzeko proposamena egin du, honakoa: lehen blokea, egileek onartu eta laburbildu dituzten partikularren alegazioekin bat datorrena; bigarren blokea, egileek gaitzetsi dituzten alegazio jakin batzuk onar daitezela proposatzeko dena, adierazitako xehetasunen arabera; eta, azkenik, hirugarren atala, egileek gaitzetsi dituzten udal iradokizunak onar daitezela proposatzeko dena.

2006ko uztailaren 17ko osoko bilkurako akordioa aurreko paragrafoan adierazitako arkitekto aholkulariaren proposamenarekin bat etorritz hartu zen. Egileei hirugarren partikularren onartutako iradokizunak eta Udalak berak aurkeztutakoak barneratzeko eskatu zitzairen. Akordio horrek ez ditu gaitzetsitako alegazioak aipatzen, ezta beste edozein gogoeta ere.

3. 2006ko abenduaren 28an Bastidako Udalak hasieran onartu zuen Arau Subsidiarioen berrikuspena eta, orduz geroztik, horiek berrikusi eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrera (HAPO) egokitzeko espediente gisa izapidetu zen. Era berean, Arau Subsidiarioak berrikusi eta horiek Plan Orokorrera egokitzeko espedientea, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterlana eta Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak ingurumen eraginari buruz egindako aurretiazko txostena jendaurrean jartzea erabaki zuen.
4. Torrolate plataformak Plan Orokorraren agiria hasieran onartzearen aurkako bi alegazio idazki aurkeztu zituen: bata, agiria hasieran onartzeko erabakiaren aurrerapen fasea baliozkotzearen aurkako alegazioa; eta, bestea, izapidetzen ari zen plangintzako agiriaren aurkako alegazioa.

5. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak “Hirigintzako Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusi eta horiek Plan Orokorrera egokitzeko” agiriak biodibertsitatean zuen eraginari buruzko txostena egin zuen 2007ko otsailaren 20an. Txostenaren helburua hasieran onartutako HAPOK biodibertsitatean izan dezakeen eraginari buruzko alderdi esanguratsuenak nabarmentzea da, horiek Plana behin-behinean onartu baino lehen aintzat har daitezten eta behin betiko dokumentua idazten amai dadin.

Txostenak diotenaren arabera, alderdi horiek Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren eginkizun eta erantzukizunen artean kokatzen dira, Euskadiko Natura 2000 sarearen behatoki iraunkorra den heinean, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2002-2006), Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan bildutako konpromiso, irizpide eta helburuen artean ere.

6. 2007ko martxoaren 28an Bastidako Udalak behin-behinean onartu zuen “Hirigintzako Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusi eta horiek Plan Orokorrera egokitzeko” espedientea, proposatu ziren aldaketa arrazoituekin. Hauek aipatu plan orokorraren zuzenketa gisa aurkeztu ziren, jendaurreko informazio aldian egindako alegazioak ikusita, xehetasunen arabera onartu edo gaitzetsi egin ziren kontuan hartuta.

Elkarteak egindako alegazioak osorik gaitzetsi ziren helarazi zitzaizen “alegazioen inguruko erantzun” banakatuan adierazi diren arrazoietan oinarrituta, zegozkion txosten tekniko eta juridikoekin bat etorriz.

7. 2007ko uztailaren 2an Torrolate elkarteak alegazio idazkia aurkeztu zuen Ebroko Konfederazio Hidrografikoan, 75 urtez golf zelaia ureztatzeko ur emakida eskatzeko espedientearen jendaurreko informazio aldian. Emakida Udalak eskatu zuen, San Ginés de Labastida S.A. merkataritzako sozietateak egindako obra-proiektuaren arabera.
8. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuaren Ingurumen Eraginari buruzko behin betiko Txostena, 2007ko uztailaren 12koa, Bastidako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartzearen ondotik hasi den ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedurari buruzkoa.

9. 2007ko urriaren 29ko txostena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak egina, Kantauriko mendizerra babes bereziko eremu gisa deklaratzeko jendaurreko informazio aldian jasotako alegazioei erantzutekoa, horien artean, Torrolate elkartearen alegazioei (2007ko maiatzaren 25eko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, prozedurari hasiera ematen diona).

Prozesu honek Kantauriko mendizerra babes bereziko eremu gisa deklaratzeko ekarriko du (92/43/EEE Direktibako 4. artikulua). Aurretik, beharrezkoa da hori behin-behinean onartzea eta lekuko habitat naturalak eta espezieak mantendu edo lehengoratzeko bidezkoak diren kontserbazio neurriak zehaztea, eta berriz ere jendaurrean jartzea.

10. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen akordioa, 2007ko abenduaren 17koa; horren bidez, Bastidako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedienteak proposatutako lurralde eredia baloratzen da. Lotesleak diren alderdietatik begiratuta, txosten honek hirigintzako agiriko proposamen jakin batzuen kontrako balorazioa egiten du eta lotesleak ez diren beste alderdi batzuk aipatzen ditu, behin betiko zigorra ezartzeko eskumena duen organoak guztia kontuan har dezan.

Ondorioz, aipatu du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak ezarritakoarekin bat etorritz, behin txostenean adierazitako baldintzak sartuta, Batzordeak berriz ere espedienteari buruzko txostena egin behar izango duela behin betiko onartu baino lehen.

Aurrekari horiek ikusita, kexan adierazitakoa eta Udalak eta interesdunek eurek bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Ararteko erakundearen esku-hartzearen zentzu edo izaerari buruzko baieztapen bat egin behar da, Bastidako Udalak gai horren inguruan biltzen dituen gogoetak ikusita.

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak honela definitzen du erakundea lehen artikuluan –legearen atarian adierazten duen moduan, “ombudsman” izenaz ezaguna den erakunde ereduaren barruan kokatzen da–: *“Legebiltzarrak Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dionez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-Estatutoaren 9. Atalak dakartzan demokraziazko oinarri irizpide orokorrak bete daitezenez arduratzeko jarritako goi-karguduna”*.

Gainera, artikulua horretako bigarren idatz-zatiak honakoa zehazten du: *“Herritarrak agintari eta agintaritza-gehiegikerietatik eta Euskal Herri-Arduralaritzaren utzikerietatik babestea du bere xede nagusia”*.

Ararteko erakundearen eginkizuna pertsonen eskubideak babestea da, ez bakarrik legez kontrakotzat jo litezkeen administrazio publikoen jardueren aurrean, baizik eta baita irregular, eskas edo gehiegizkoak diren jardueren aurrean ere. Kasu honetan, administrazioaren jarduerak ordenamendu juridikoan bildutako eskubideen babesarekin loturarik ba ote duen aztertu behar da, aurreko ataletan adierazi bezain modu irekian.

Horren haritik, bat gatoz Udalaren ikuspegiarekin, izan ere, sortutako problematikaren mugak zehaztu ditu eta adierazi du, Torrolate elkarteak kexan esandakoaren arabera, udal jarduerak, Bastidako Hirigintzako Plangintzako Arau Subsidiarioak (ondoren HAPO gisa izapidetuak) berrikusteko prozeduran, urratu egin duela definizioz ingurumenean eragina duten lurralde eta hirigintzako antolamenduko tresnak onartzeko prozedura administratiboetan parte hartzeko biztanleek duten eskubidea. Horregatik, Udalak esan du kexak pertsonen garapenerako egokia den ingurumenaz gozatzeko eskubidea (EKren 45. artikulua) zaintzea duela helburu; hala, eginkizun horretan, biztanleek, nola banaka hala taldean, benetan eta modu eraginkorrean parte hartu ahal dezaten, beharrezkoa da bitarteko egokiak izatea. Prozesu horretan garrantzi berezia hartzen du ingurumenean eragina duten erabaki publikoak hartzeko prozesuan parte hartzeak.

Bestalde, egia da Arartekoak egiten dituen gomendio eta iradokizunek ez dituztela administrazio egintzak bertan behera uzten, baliogabetzen edo aldatzen, ezta hasita dauden prozedurak eteten ere, tartean den administrazioak horiek kontuan hartzea egoki ikusten ez badu. Hala ere, bidezkoa da, gutxienez, bertan

jasotako arrazoibideak kontuan hartzea, pertsonak beren eskubideez baliatzean gero eta eragozpen gutxiago eta eraginkortasun maila handiagoa izan ditzaten lortze aldera, eta/edo, haiek onartu ezean, hori modu arrazoituan azaltzea.

2. Bigarren, egokia iruditu zaigu aipatzea noraino heltzen den balorazio hau kezan adierazitako arazoan berariazko edukiari dagokionez.

Aurrekarietan luze eta zabal azaldutakotik ikus daitekeen bezala, prozedura konplexua da, hirigintzak toki interesei eta tokiz gaindikoei eragiten dien lurraldearen antolamendu integrala baitakar; hala, plangintzarako eskumena udalerriek, Eusko Jaurlaritzak (Lurraldearen Antolamendu Batzordearen bidez) eta foru aldundiak partekatutako titulartasuneko ahala da.

Instantzia horietako bakoitzak plangintza orokorraren dokumentua prestatzen parte hartzen du, bere eskumen eremuari dagozkion alderdietan. Egia da, partekatutako eskumenaz baliatzean, soil-soilik udalaren interesekoak diren gaiei eragiten dieten planaren eskumeneko alderdiak xedaezinak direla gainerako instantzietarako. Hala ere, kontuan izan behar dugu elkartea Planeko proposamenaren aurka egoteko arrazoi nagusiak lotura estua duela proposatutako antolamendu ereduarekin eta lurralde antolamendurako eta antolamendu sektorialeko tresnekin, baita Planeko proposamenek ingurumenean duten eraginari buruzko balorazioarekin ere. Hortaz, alderdi horien guztien inguruko txosten loteslea egin edo, hala badagokio, ebazpena eman behar dute lehen aipatu ditugun udalaz gaindiko instantziek.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da aipatzea hizpide dugun espedientea izapidetze prozesuan dela, hori behin betiko onartzeko eskumena duen administrazioak, hots, Arabako Foru Aldundiak, oraindik ez baitu irizpenik eman eta, gainera, funtsezko beste izapide batzuk ere egin behar baitira, aurrerago zehaztuko den moduan. Horren haritik, uste dugu ez dela bidezkoa erakunde honek irizpena ematea plangintzako agiriaren eduki materialari buruz, tokiz haraindiko eta legezko interesengatik eskumenak dituzten administrazioek oraindik ez baitute aukerarik izan iritzirik emateko.

Hasita dagoen izapidetze fasean, aurrekarietako 10. puntuan adierazi bezala, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txosten loteslea egin du Plan Orokorra lurralde antolamenduko tresnetara egokitzeari eta Estatuko administrazioaren, administrazio autonomikoaren edo foru administrazioaren

eskumenekoak diren alderdi sektorialeiei buruz, baita ingurumen eraginaren baterako ebaluazio txostenari buruz ere.

Txosten horrek, biltzen dituen alderdi lotesleei dagokienez, hainbat konturen aurkako balorazioa egin du, besteak beste, elkartea Planaren kontra egoteko arrazoi nagusiekin erlazionatutakoen aurkako. Horrela, “San Ginéseko golf zelaiaren eremua” izeneko ekipamendu kolektibo pribatuko sistema orokorrerako proposatutako mugatzearen kontra egin da, hori ez baitator bat babes bereziko eremuetan halako ekipamenduak jartzeari dagokionez Guardiako (Arabako Errioxa) Lurralde Plan Partzialeko 44.2 artikuluan aipatzen den debekuarekin. Bastida iparraldea-Golf zelaia bizitegitarako 1. sektorearen aurkako balorazioa egin da, sektorea Lurralde Plan Partzialeko lurralde eredian integratzeari, lurraldeko ingurumen balioekin bateragarri izateari eta iraunkortasun printzipiora egokitzeari dagokienez.

Horren guztiaren ondorioz, Udalak dagozkion aldaketak egin behar ditu, derrigor, Plan Orokorrean, txostenean aurkeztutako baldintzekin bat etorritik, eta, Foru Aldundiak behin betiko onartu aurretik, espedientea Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari aurkeztu behar dio, honek txostena egin dezan.

Hortaz, Bastidako Udalak, izapide hori betetzerakoan, neurtu egin behar du ea aldaketa horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamendu ereduari funtsezko aldaketa dakarkioten eta, ondorioz, ea aldatutako plangintza orokorraren agiria berriz ere jendaurreko informazio aldian jarri behar duen, Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak espedientea aurkeztu aurretik txostena egin dezan.

Udalak balorazio arrazoitu hori egin behar izatearen kaltetan izan gabe, egokia iruditu zaigu Auzitegi Gorenak funtsezko aldaketaren kontzeptu juridiko zehaztugabearen inguruan duen doktrina aipatzea. Horrela, Auzitegi Gorenak honakoa zehaztu du (2005eko azaroaren 2ko epaia -RJ 2005/7419-):

“funtsezko aldaketa esapidea kontzeptu juridiko zehaztugabea da. Horrek esan nahi duena da nola behin-behineko onarpenean hala behin betikoan egiten diren aldaketek aukeratu eta onartutako plangintza-eredua aldatzen dutela, eta ezberdina dela pentsarazten dutela, hain ezberdina, ezen plangintza berria dela esan baitaiteke. Hain zuzen ere, kontzeptu juridiko hori zehaztugabea denez, beharrezkoa da frogak aurkeztea aldaketen

izaera sailkatu ahal izateko. Hori dela-eta, prozeduran aurreztearen ondorioetarako, kontzeptua era murriztailean interpretatu behar da planak prestatzerakoan, horiek ez baitira inoiz berriro jendaurrean jarriko aldaketak planeko alderdi zehatzei buruzkoak direnean eta, beraz, ez zaionean eragiten Administrazioak “ius variandi” erabilita planean finkatuta geratzen den lurralde ereduari”.

Plan Orokorreko proposamenean egin beharreko aldaketek, besteak beste, lurzoru urbanizagarriaren sailkapena, lurzoruaren okupazioa, aukeratutako lurralde ereduaren koherentzia eta natura zaindu eta ingurumena babesteko jarraibideak bezalako kontuei eragiten diete. Kontu horiek guztiak hirigintzako antolamendu estrukturalaren berezko zehaztapenen artean koka daiteke, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53. artikulua definitzen duenaren arabera.

Gainera, eragin horiek garrantzi handiko eskala kualitatibo eta kuantitatiboa dute; hori azaltzeko nahikoa da esatea Bastida iparraldea-Golf zelaia bizitegitarako 1. sektoreak 419.874 m²-ko azalera duela, proposatu den bizitegitarako lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren azalera 635.683 m²-koa izanik. Bestalde, golf zelaiko ekipamendu kolektibo pribatuko sistema orokorrak, lurzoru urbanizagarri izateari utziko dionak, 492.200 m²-ko azalera du; nolahi ere, beharrezkoa da, gainera, horren azaleraren % 25 inguru berriro mugatzea, babes bereziko eremua/interesa komunitarioko lekua den Kantauriko mendizerrari eragiten baitio.

Testuinguru horretan, Plan Orokorren proposamen aldatua jendaurrean jartzea beharrezkoa izan litekeelakoan, elkarteak aurkeztutako kexaren inguruko gogoetak egin genituen, zehazki, honako alderdi hauei dagokienez: batetik, herritarrek parte hartu ahal izateko duten eskubidea, plan proposamenak etorkizun hurbilerako jasotzen duen “hiri” ereduaren inguruko iritziak alderatu ahal izateko; eta, bestetik, aurkeztu zituzten alegazioak zirela-eta organo eskudunaren erantzun arrazoitua jasotzeko duten eskubidea. Bigarren alderdi hau hurrengo atalean garatuko dugu.

Bestalde, elkarte interesdunak erakunde honi eskatu dio, halaber, azter ditzala Udalak hartu dituen erabaki ugariak, udal ondareko ondasunak ekarrita merkataritzako sozietatea eratzeari eta, ondasun horiekin akzioak harpidetuta, merkataritzako sozietate batean parte hartzeari buruzkoak. Kontu hau dela-eta, eragiketan erabilitako ondarezko ondasunen izaera juridikoa jarri dute zalantzan,

baita hirigintzaren ikuspegitik berriro kalifikatu behar den eremuan lurrak eskualdatzerakoan egin izan daitezkeen espekulaziozko eragiketak ere.

3. Hortaz, atal honetan, **herritarrek parte hartzeko** eskubideari buruzko hausnarketa egingo dugu, hain zuzen ere, nola gauzatu den eskubide hori udalerriko plangintza orokorra izapidetzerakoan eta nola bete duen Bastidako Udalak biztanleen kontrola jendaurreko informazio aldiaren izapidez baliatuta.

Tradizionalki, biztanleek, oro har, hirigintzako planak prestatu, aldatu eta berrikusteko prozeduretan parte hartzeko duten eskubidea hirigintzako legerian jasota egon da, hirigintzako prozeduran interesdun izateko tartean inolako legitimazio edo interes berezirik egotea ez dakarren eskubide gisa. Alabaina, nagusiki ingurumenaren arloan tresna juridiko berriak garatu direnez eta biztanleak sentsibilizatuago daudenez, garrantzi handiagoa hartu du biztanleek erabakiak hartzerakoan izan behar duten eginkizunak; erabaki horien artean, lurralde eta hirigintzako antolamenduari buruzkoak ere badaude, ingurumenean duten eragin nabarmenagatik, beste atal batean ere adierazi dugun moduan.

Tresna garrantzitsu horietako bat Aarhuseko Hitzarmena da (duela 10 urte inguru sinatu zen, 1997ko ekainaren 25ean, baina Espainiak 2004ko abenduaren 15ean berretsi zuen); hitzarmenari esker, biztanleek erabakiak hartzerakoan duten garrantzia nabarmen indartu zen. Horrela, Hitzarmenaren sarreran, honakoa zehazten da:

“Ingurumenaren arloan, informazioa eskuratzeko bideak hobetzeak eta biztanleek erabakiak hartzerakoan parte-hartze handiagoa izateak erabaki egokiagoak hartzea eta horiek modu eraginkorragoan aplikatzea ahalbidetzen du, biztanleak ingurumeneko arazoekiko sentsibilizatzen laguntzen du, biztanleei beren kezka adierazteko aukera ematen die eta agintari publikoei kezka horiek behar bezala kontuan hartzeko bidea ematen die.”

Ondorioz, alde bakoitzak hitzematzen du neurriak hartuko dituela biztanleen parte-hartzea prozeduraren hasieran has dadin, hau da, aukerak eta konponbideak oraindik posible direnean eta publikoak benetan eragin dezakeenean (6.4 artikulua).

Adierazitakotik, nabarmendu behar dugu, garrantzitsua baita, biztanleek erabakiak hartzerakoan parte hartzeak erabaki egokiagoak hartzea ahalbidetzen duela eta, horretarako, ezinbestekoa dela lankidetzaz hori prozeduraren hasieran hastea, aukera eta irtenbide guztiak egiaztatu eta dagokion erabakian benetako eragina lortu ahal izateko.

Garrantzitsua da hori azpimarratzea, izan ere, atal honen hasieran adierazi bezala, biztanleek parte hartu behar zutela aspalditik ezarri zen arren, gure ustez, hirigintzako plangintza izapidetzeko prozedurak jendaurreko informazioaldian, Hitzarmenak parte-hartzea zehazteko erabiltzen duen moduak indartu egiten dituz kasuan kasuko administrazio publikoak erabaki egokiagoak hartu ahal izateko interesatuta dauden biztanleen parte-hartzeak duen eginkizuna eta garrantzia.

Hitzarmenean jasotako helburuak eta konpromisoak hainbat araudiren bidez garatu dira bai Europan, bai Estatutuan, baita autonomia-erkidegoetan ere, eta horiek eragin zuzena izan dute hizpide dugun gaian. Horrela, gure autonomia-erkidegoan Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrek jada ezarri zuen hiri antolamendurako plan orokorreko ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egin behar zitzaiela nahitaez (41. artikulua eta I. eranskineko A) atala). Ingurumen eraginaren ebaluazioek, besteak beste, ondorengo helburuak izan behar zituzten: plangintzako lehen faseetan, eta alternatiba egokienak aukeratzeko, ingurumenean izango diren eraginaren analisia sartzeko, jarduera desberdinen eragin metagarri eta sinergikoak kontuan hartuko direlarik; eta arlo publikoak eta pribatuak parte hartzea erraztea (42. artikulua).

Aurreko ezarpena garatuz, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua onartu zen, ingurumen eragina batera ebaluatzeko prozedura arautzen duena. Dekretuak jasotzen duen moduan, ingurumen eraginaren ebaluazioa ingurumeneko baliabideak zaindu eta ingurunea babesteko bereziki egokia den tresna dela ikusi da, ingurumenaren aldagaia erabakiak hartzerakoan kontuan izatea ahalbidetu baitu. Horregatik da garrantzitsua tresna hori plan eta programei aplikagarri izatea, horien bidez ezartzen baitira proiektu handien kokapena eta burutzapena zehazteko irizpide estrategikoak.

Dekretu honen birtualtasuna da ingurumen eraginaren ebaluazioa plan eta programa ezberdinak prestatu eta onartzeko prozeduretan sartuta dagoen prozedura baten bidez artikulatzen duela, plangintzarekin erlazionatutako

erabakiak hartzerakoan ingurumenaren aldagaia behar bezala barneratzen dela bermatzeko.

Ingurumen eragina batera ebaluatzeko azterlanaren edukiari dagokionez, dekretuaren eranskinak horren egitura zehazten du eta bederatzi ataletan banatuta egongo dela dio. Halaber, dokumentua kasuan kasuko planaren izaerara eta edukira moldatuko da. Zehaztasunetan jausi gabe, ondorengo atalak aipatu behar dira:

- Plan edo programako helburu estrategikoen eta helburu horiek gauzatzeko aztertutako alternatiben deskribapena, bederatzi puntutan ematen diren xehetasun ugarien arabera.
- Teknikoki arrazoizkoak diren alternatiben ingurumen azterketa. Hartutako irtenbidearen justifikazioa.

Azken atal horrek dio, bildutako informazioan oinarrituta, teknikoki arrazoizkoak diren alternatibek ingurumenean dituzten ondorioen analisi bereizgarria egin behar dela eta, besteak beste, ondorengo alderdi hauek zehaztu behar direla:

- Plan edo programako alternatibetan adierazitako jardueren definizioa.
- Sistemak, egungo joerak eta etorkizunean izan ditzakeen ikusita, izango lukeen bilakaerak erakusten duen 0 alternatibaren edo esku-hartzerik ezaren definizioa.
- Alternatibak eta beren eragina baloratzeko eta hartutako irtenbidea justifikatzeko erabiliko diren ingurumen irizpideen deskribapena.

Hortaz, aipatu araudiaren ikuspegitik, beharrezkoa da 0 alternatiba (planik eza) definitu eta baloratzea eta, are garrantzitsuagoa dena, azkenean aukeratzen den irtenbidea eta beste alternatibak baztertzeko arrazoiak justifikatzea.

Hemen adierazitakoarekin lotzeko, alegia, ingurumenaren ondorioetarako beharrezkoa dela sortzen diren proposamenak eta plana ez sustatzeko proposamena alderatzea, komenigarria da hori guztia Plan Orokorra izapidetzeko prozeduran nola elkartzen den aztertzea, nolabait lurralde eta hirigintzako antolamenduaren ikuspegi globalizatzaileago batetik, baina inola ere ahaztu gabe ingurumenaren zeharkakotasunak hartu beharreko erabaki estrategikoetan eragina izango duela, ingurumena “integrala” baita, Udalak berak nabarmendu duen moduan.

Planaren Aurrerapena Hiri Antolamendurako Plan Orokorra osatzen duten dokumentuetatik aipatu planak idazteko jarraibide gisa balio izango duten antolamenduko irizpide, helburu, alternatiba eta proposamen orokorrak definitzea helburu duen lehen dokumentua da. Honek dagokion hirigintzako plana prestatzeko barne ondorio administratiboak ditu, nahiz eta garrantzi handiko izapidea izan plana izapidetzeko prozesu konplexu horretan. Gainera, ingurumen eragina batera ebaluatzeko azterlana barneratu behar du, arauz ezarrিতako edukiarekin (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 87. artikulua).

Horren haritik, Aurrerapenaren izaerak eta xedeak ez du 2/2006 Legea indarrean sartu baino lehen zegoen hirigintzako araudia aldatu (2/2006 Legea 2006ko irailaren 20an sartu zen indarrean); ingurumen eraginaren azterlana egin behar dela baino ez da barneratu, nahiz eta, lehen esan bezala, hori jada hala adierazi zen 183/2003 Dekretuan.

Dokumentu hau jendaurrean jarrita, iradokizunak eta plangintzako beste alternatiba batzuk aurkez daitezzen nahi da. Udalak baloratu egin behar ditu Plan Orokorra idazteko oinarri izango diren irizpide eta helburuak onartzeko izapidean. Hortaz, fase horretan, jendeak oro har, prozedura horretan edozein pertsona izan daitekeenez interesduna, plangintzako beste alternatiba batzuk aurkez ditzake eta Udalak horien inguruko iritzi arrazoitua eman behar du nahitaez.

Prozeduraren fase honetan elkartek egindako alegazioan adierazi zen ez zela beharrezkoa indarreko plangintza orokorra berrikustea, alegia, ez plana, eta indarrean zeuden Plangintzako Arau Subsidiarioen eraginkortasunari eutsi behar zitzaiola, LPP indarrean sartzearen ondorioz egin beharreko egokitzapenen kaltetan izan gabe. Horretarako arrazoiak izan ziren, laburbilduz, Udalaren proposamena udalerria pixkanaka baina etengabe gain behera datorrela hautematearen premisatik abiatzen dela; gainbehera hori ez da gertakari ziur edo alderatutako datuetatik hautematen, erabilitako dokumentazioaren arabera (hirigintzako informazioko agiria). Ondorioz, elkartearen hitzetan, ezarrিতako irtenbidea “udal interesetarako lehentasunezko proiektu estrategiko” gisa golf zelaia sortzeko proposamena onartzearen inguruan biltzen da, aurretik hartutako erabakia izaki, eta plangintza berrikustearen helburu nagusia bilakatzen da.

Alegazio horiei dagokienez, hirugarren aurrekarian adierazi dugun moduan, Plana idatzi zuen taldeak egin zuen balorazioa izan zen, argi eta garbi jarrera politikoa zenez, ez zela bidezkoa alderdi horiek aztertzea eta, beraz, erabakiak hartzeko organo politikoen esku utzi zuten kontua, iritzia eman zezaten. Ondorioz, adierazi zuten beren balorazioa alderdi teknikoekin zerikusia zuten gaietara mugatuko zela.

Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak “politiko” hitzari ematen dizkion adieretatik, honakoa nabarmendu behar dugu: *“herritarrak burutzen duen jarduera, iritzia edo botoa emanda nahiz beste edozein modutara arazo publikoetan parte hartzen duenean”*. Hortaz, jendeak plangintza orokorra onartzeko prozeduran parte hartzea, berez, politikoa da, iradokizunak aurkez baititzake eta, bereziki, plangintza egiteko eskumena duten organoek proposatutakoak ez beste plangintzako alternatiba batzuk.

Aurrekarietan adierazi dugunaren arabera, 2006ko uztailaren 17ko osoko bilkuraren akordioak, Plana idatzi behar zuen taldeari hasieran onartu beharreko agiria prestatzeko agindu zionak, taldeak berak eta udal arkitekto aholkulariak egindako proposamena hartu zuen abiapuntu gisa eta, beraz, Udalbatzak ez zituen teknikariek proposatutakoak ez ziren beste alderdirik aintzat hartu iritzia ematerakoan. Hortaz, esan dezakegu ez zela iritzirik agertu Torrolate elkarteak egindako alegazioaren funtsezko alderdiei zegokienez, antza, horiek eduki “politikoa” zutelako.

Baieztapen horretatik abiatuta, aztertu beharreko hurrengo kontua da ea Bastidako Udalak derrigor eman behar zuen iritzia “izaera politikoko apriorismoetan oinarrituta” zegoen eta berrikusteko prozeduran atzera egiteko bide ematen zuen alegazioaren inguruan, Udalak erakunde honen informazio eskaerari emandako erantzunean dioen bezala.

Hirigintzako plangintza Administrazioa bere ahalez baliatzearen adierazpen ohikoetako bat izan da beti. Udalak horren inguruan dio, Administrazioa ahal horretaz baliatzean, *“hainbat alternatiben artean lurraldea antolatzeko irtenbide jakin bat aukeratu behar duela eta alternatiba horiek guztiak, kontzeptu juridiko zehaztugabeekin gertatzen ez den bezala, justuak direla, hau da, juridikoki berdinak direla; hortaz, helburua ez da plangintza-egileak egindako aukera egokiena den erabakitzea, baizik eta hori legezkoa ote den”*.

Planteamendu honek, etengabeko doktrina jurisprudenzialak bermatzen duenak, ez du esan nahi, gure ustez, Udalak ez duenik behar bezala arrazoitu behar zergatik ez dituen aintzat hartu proposatutakoez bestelako plangintza alternatibak. Hau da, hasiera batean, ez litzateke behartuta egongo bere alternatiba zergatik den onena arrazoitzera, baina bai jendeak aurkeztutako proposamen alternatiboak zergatik aintzat hartu ez diren arrazoitzera, aurreikusitako plangintzako helburu orokorrekin alderatu ondoren (ingurumen arlokoak barne).

Hori, gure ustez, ez dago kontraesanean udalek udalerriaren garapen sozio-ekonomiko eta instituzionalari dagokionez tokiko herri interesa interpretatzeko legitimazioa izatearekin. Bestelako ondorio batera iristea jendaurreko informazio aldia kontu formala besterik ez dela eta, alegazioek izaera “teknikoa” izan ezean, Udala bere gaitzespena arrazoitzera behartua ez dagoela pentsatzea litzateke. Prozeduraren fase honetan, jendeak plangintza alternatibak eta, beraz, alternatiba “politikoak” planteatzeko aukera du, aurrez azaldu dugun bezala.

Bestalde, ingurumenaren zeharkako izaerarekin eta horrek plangintzako erabaki estrategikoetan duen eraginarekin lotuta, tradizioz aldarrikatu izan den plangintzaren eskumeneko ahalmenak gaur egun arrazoitzeko eta alderatzeko ahalegin handiagoa eskatzen duela uste dugu lurralde eredia eta hartzen diren hirigintzako gainerako egiturazko antolamendu arauak justifikatze aldera.

Ildo horretan, Udala, bere erabakietan ingurumen aldagaia aplikatzearen ondorioz, teknikoki arrazoizkoak diren alternatibak ingurumen aldetik **aztertzer**a eta hartutako konponbidea **justifikatzer**a behartua dago. Horretarako, gutxienez, planteatutako aukera desberdinak (aurreikusitako lurzoruen erabileretarako aukerako eremu desberdinak, adibidez) zehaztu, deskribatu eta globalki baloratu ondoren, eta sistemak ezagutzen zaizkion joeren arabera eta etorkizunerako aurreikusten zaizkion joeren arabera izango lukeen eboluzioa erakusten duen 0 alternatiba edo “esku-hartzerik eza” definitu ondoren, azkenean hartutako konponbidea ez ezik, gainerako aukerak baztertzeko arrazoiak ere justifikatu egin behar izango ditu.

Horrela, azterketa honetan nahitaezkoa da, gutxienez, 0 alternatiba sartzea, eta azkenean hautatutako alternatiba, garapen iraunkorraren printzipioari ondoen egokitzen zaiolako, ingurumen aldetik onena dela erakusten duen arrazoitze

prozesu bat eskatzen du. Ez dugu ahaztu behar garapen iraunkorra dela hirigintza antolamenduko irizpide orientatzaile bat, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusi bezala.

Horrenbestez, hasieran eta espedientearen ondoreneko faseetan erreklamatzailleek planteatutako gaiaren hirugarren alderdi bat aztertu behar da. Egindako alegazioak plangintza alternatibatzat har daitezkeen erabakitzeaz ari gara. Horri dagokionez, Udalak ulertarazi duenaren arabera, berez, alegazioak ez dira benetako plangintza alternatiba bat, baizik eta “*denaren zuzenketa*” da, “*tokiko gobernuari itzultzeko*”. Planaren berrikuspena ez izapidetzeko aukera –planik eza edo 0 alternatiba– plangintza alternatiba bat ez ezik, gutxienez ingurumen arloko araudiaren ondorioz nahitaez baloratu beharreko alternatiba bat da.

Udalak, espedientea izapidetzeko fase desberdinetan –bere iritzia azaltzeko aukera izan du fase horietan–, beti argudiatu izan du ezin dela eztabaidatu Bastidan golf zelaia ezartzeko eta eraikitzeko proiektua garatzeko erabaki estrategikoa, 2003ko irailaren 23ko bileran onartutakoa, dagoeneko aho batez onartu delako erabaki hori. Era horretan, planaren proposamenaren ardatz izan den proiektu estrategikoak eztabaidatu edo beste plangintza alternatiboekin alderatu ezin den aurretiko premisa gisa jarduten du, erabakiak hartzeko ahalmena duten organo politikoaren borondatearen adierazpide delako.

Planteamendu horri egotz lekiokena ez da hasiera-hasieratik golf zelaia ezartzeko eta eraikitzeko proiektua garatzea lortzea plangintzaren irizpide eta helburu gisa hartzea, baizik eta prozedura osoan zehar plangintza proposamen hori, behar adina, gutxienez, plana ez gauzatzeko planteatutako alternatibarekin ez alderatzea, adierazi bezala.

Testuinguru horretan, egoki irizten diogu hau adierazteari: agiriaren egungo izapidetze fasean –Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txosten loteslearen zehaztapenak eta organo eskudunek emandako sektorekako txostenetatik ateratako gainerako zehaztapenak agirian barneratzeko premia– beharrezkoa eta komenigarria litzateke atal honetan azaldutako gaiak sakontzea, aukeratutako hiri eta garapen eredua egiaztatu eta justifikatuz, eta plana ez berraztertzeko alternatibari eta, zehazki, golf zelaiaren proiektu estrategikoa ez gauzatzeari uko egiteko arrazoiak azalduz. Hori guztia informazio publikoko izapide berri bat izateko aurreikuspenaren esparruan; erreklamatzailleek planteatutako gaiei erantzun arrazoitua emateko aukera dakar horrek.

Gainera, prozeduraren fase hau betetzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea Plan Orokorrak behar bezala jaso behar duela plangintzaren helburu eta irizpide orokorren eta beharrezkoak diren ingurumen helburuak betetzearen arteko alderaketa, lurralde antolamendurako tresnen eta aplikagarri diren bestelakoen arabera (LAA, LPP, Sektorekako Planak, etab.). Egokia da baieztapen hau, baldin eta plangintza arloko eskumeneko ahalmena kontrol juridikzionalari lotua badago; azken horrek, beste alderdi batzuen artean, hartutako erabakiak behar bezala arrazoituta dauden, hartutako erabakiaren inguruabar eta egintza erabakitzaileak elkartzen diren, eta jarduketa publiko orok jakinarazi beharreko zuzenbideko printzipio orokorrei egokitzen zaien aztertuko du. Zehaztapen horiek guztiak behar bezala islatu behar dira memorian; hortik aterako da planaren behar adinako koherentzia eta motibazioa.

Laburbilduz, Planaren Memoriaren edukia garrantzitsua da hartzen diren berariazko plangintza erabakiekiko diskrezionalak izan daitezkeen helburu orokorrek alderatzeko, dagozkien berariazko konponbideen muga gisa jarduten dutela, berraztertzen den aurreko plangintzarekiko funtsezko aldaketak dakartzaten arrazoen azalpena barne (adibidez, lurzoru urbanizaezinak babesteko araubidearen bariazioaren inguruko aldaketak).

- 4 Elkarteak planteatzen zuen beste gaia eta gogoeta hauetan aipatuko duguna, “Labastida Gestión Municipal, S.L.” tokiko sozietate publikoaren sorkuntzaren eta jarduketaren ingurukoa da, erakunde horrek merkataritzako hirugarren sozietate pribatu baten akzioen % 20 eskuratzearekin eta bi aldean artean izenpetutako itunekin batera (akziodunen ituna deiturikoa).

Bastidako Udalak sortutako tokiko sozietate publikoa kapital guztia Udalarena duen sozietate bat da, sozietate instrumental gisa eratzen dena eta helburu sozial gisa udalerriko hirigintzako plangintzaren eta kudeaketaren esparruan eta sustapen ekonomikoaren eta garapen industrial eta turistikoaren esparruan jarduera ekonomikoak gauzatzea duena. Horrez gain, helburutzat dauka *“golf zelaia ezartzeari loturiko azpiegiturak eta ekipamenduak proiektatu, garatu, eraiki eta kudeatzea”*, baita, bere izenean edo Udalaren kontura, udalerriko hiri garapena ahalik eta ondoen bideratzeko beharrezkoak diren obra guztiak egitea ere.

Helburu sozial hori betetzeko, estatutuek pribilegio zabalak ematen dizkiote, sozietate mistoak eratzea barne, dagoeneko eraturako beste edozein merkataritza sozietatetan parte hartuz zein halakoak eraturaz, dagoeneko eraturako beste merkataritza sozietate batzuen partaidetzarekin.

Bestalde, kapital soziala, 2006ko otsailaren 10ean erabakitako kapitalaren gehikuntza barne, 247.000 euroan finkatu da (1.298,68 € esku-dirutan eta 245.701,32 € sozietateari emandako udal titulartasuneko ondare ondasun higiezinaren kontrabaliario gisa). Beraz, Udalak emandako ondasunek osatzen dute ia kapital sozial guztia.

Tokiko sozietate publikoari emandako lursailak lurzoru urbanizaezinean daude. Nahiz eta ez den ezer adierazten, berariaz behintzat, sozietateari ondasun zehatz horiek besterentzeko interesaz, inplizituki uler daiteke lursail horiek fisikoki kokatzea edo golf zelaiaren ekipamendu kolektibo pribatuko sistema orokorraren etorkizuneko garapenari eta Plan Orokorrak lurzoru urbanizagarri gisa proposatzen zuen 1. sektoreari (bizitegitarako/golf eremua, Bastida iparraldea, golf zelaia) lotuta geratzean datzala interesa.

Emandako ondasunen kalifikazio juridikoari dagokionez, Udalak adierazi du ondare izaera dutela emandako partzela guztiek. Kapital gehikuntzaren kasu zehatzean, adierazi duenez, Udalaren ondasunen inbentarioan, alde batera, katalogatutako mendi gisa agertzen dira. Berez, emandakoak ez dagozkie Arabako Foru Aldundiaren herri onurako mendien katalogoan sartutakoei, baizik eta udal ondasunen inbentarioan izaera horrekin inbentariatutako partzelak dira eta, beraz, ez dira herri onurako ondasuntzat hartzen. Ondorio hori honetan oinarritzen da: udal ondasunen inbentarioa ez da herri onurako mendi gisa kalifikatzeko tresna egokia.

Horrez gain, adierazi denaren arabera, ezin da jakin zein den 169 zk.ko herri ondurako mendiaren eta "Artadiko hegala", izan ere, foru organo eskudunak ez dauka mugarrituta, ezta zedarrituta ere, 169 zk.ko herri onurako mendia. Horrenbestez, mugarritzea eta zedarritzea egiten ez den bitartean, hizpide diren landa partzela guztiak 169 zk.ko herri onurako mendiaren muga barruan ez daudela pentsatu behar da. Horri dagokionez, herri onurako mendia mugarritu eta zedarritzea foru organoaren ardura dela zehaztu behar da. Hark ofizioz edo titular interesdunak hala eskatuta egingo ditu lan horiek, beraz, Udalak berak ere eskatu

ahal izango lioke, katalogatutako mendiaren mugakide den ondare mendiaren titular den aldetik.

Ondasunak ondareko gisa behar bezala kalifikatzeak, merkataritza trafikoan sartu ahal izateko, haren ondare izaeraren gaineko garbiketa lan sakona eskatzen du. Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 113. artikulua ondare ondasunak besterendu aurretik egoera fisiko eta juridikoa garbituko dela, beharrezko izanez gero, mugaketa eginda. Bidezkoa dirudi garbiketa eta mugaketa horiek ondasunaren edozein erabileraren aurretik egitea, batez ere, kasu honetan bezala, jokoan egon litekeena ondasunaren jabari publikoko edo ondare izaera bada, horrek dakarren ondorio nabarmenarekin: horrelakoak ezin dira merkataritza trafikoan integratu.

Kasu horretan, zalantzarik gabe ondare izaerako ondasunak direla egiaztatu ondoren, bigarren gai bat aztertu behar da mendien sektorekako araudiaren ikuspegitik, hau abiapuntu dela: emandako landa partzelak, udal aholkularitza juridikoaren txostenean agertzen denez, mendia dira eta, beraz, kasu horretan, ondareko herri mendia da. Arlo honetako araudi aplikagarriak, udal sozietate berriari besterentzeko erabakiak hartu zirenean, ez zuen inolako muga zuzenik jartzen. Izan ere, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen aurreikuspenetako askok, kasu honi aplikagarri izango litzaiokeen heinean, autonomia erkidegoek garatzea edo beste betearazte neurri batzuk eskatzen zituzten (babes mendi izendatzea edo babes bereziko beste figura batzuk, adibidez).

Zehazki, aplikagarri den araudia sakon aztertu gabe, Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru arau berriak 8. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Arabako Foru Aldundiak, toki erakundeen ondare mendiak besterendu nahi direnean, haiek eskuratzeko lehentasuna izateko eskubidea du. Horretarako, bestalde, kontuan hartu behar da azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 25.3 artikulua adierazitako aurreikuspena ere. Bertan adierazitakoaren arabera, ez da lehentasunez eskuratzeko eskubiderik izango titular besterentzaileek gutxienez bost urtez gehienezko partaidetza izan behar duteneko sozietate bati kapital ekarpena espezetan egiten zaionean.

Laburbilduz, ondasun horiek ondareko herri mendi gisa duten izaeraren ikuspegitik (inguruabar hori egiaztatuta badago betiere) ez zegoen inolako mugarik udal titulartasuneko merkataritza erakundeari besterentzeko, nahiz eta

etorkizunerako eta ondoz ondoko kapital gehikuntzetarako, hala egokituz gero, aipaturiko araudia erabat aplikagarri izango den.

Bestalde, ondasun horiek besterentzeko eragiketa ere lurzoruaren ondare publikoen sektorekako araudiaren ikuspegitik aztertzea komeni da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 113.2 artikulua arabera, lurzoruaren udal ondareen parte dira, besteak beste, hirigintza plangintzak hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen dituen lursailtako Udalaren ondare ondasunak. Udal sozietate publikoari emandako ondare ondasunek ez dute izaera hori, lurzoru urbanizaezinean kokatuta daudelako, nahiz eta izapidetze bidean den Plan Orokorraren proposamenaren arabera urbanizagarri gisa sailkatzen diren. Beraz, behin betiko izaera hori hartutakoan, lurzoruaren udal ondarearen parte izatera pasako lirateke. Izan ere, horretarako berdin dio udal sozietatearen publikoak titulartasuna izateak, aipaturiko artikulua berariaz adierazten duen bezala.

Jabetza edo eskubideak, hirigintzako plangintzak berariaz herri horniduretara edo herri babeseko araubideren baten menpeko etxebizitzak eraikitzea bideratutakotzat kalifikatzen ez dituenak, besterentzea dakarten lurzoruaren herri ondareko ondasunak modu askean besterendu ahal izango dira lehiaketa publikoaren edo trukearen bidez (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 116.2 artikulua).

Ildo horretan, ondasunak sozietate publikoari besterentzearen inguruko erabakiak hartu ziren unean, aipaturiko berariazko araudia ezin da aplikagarritzat hartu, nahiz eta izapidetze bidean den Plan Orokorraren udal proposamenaren arabera dagoeneko lurzoru urbanizagarri gisa aurreikusita zegoen.

Horiek horrela, zuzenean tokiko sozietate publikoari besterentzea posible den aztertu behar da. Udalak baiezko ondoriora iristeko erabilitako argudio juridikoak dira, gaia zuzenean arautzen duen berariazko araudirik ezean, zuzenbide gehigarriaren arabera (besteak beste, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea) eta beste kasu batzuen analogiazko aplikazioaren arabera arrazoizkoa dela eta oinarrituta dagoela besterentze zuzena.

Hala ere, Udalak erabilitako argudioetan nabarmendu behar dena da besterentze zuzena erakunde eta instituzio publikoen kasuan egin daitekeela (zentzu zabalean

ulertuta, hau da, baita merkataritza sozietateren baten kasuan ere, haren kapitala gehienbat administrazio baten edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko baten zuzeneko edo zeharkako partaidetzakoa bada). Hau da, garrantzitsuena ez da ondarea kudeatuko duen sozietatearen forma juridikoa, baizik eta ondare horren kudeaketa erakunde publiko baten kontrolpean egotea. Ildo horretan, ez dirudi inolako arazorik dakarrenik Udalak erabat bere kontrolpean mantentzen duen ondare bat tokiko sozietate publikoari zuzenean besterentzeak, era honetako ondasunetarako aurreikusitako besterentze moduetara jo gabe (trukea edo enkantea, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren arabera). Hala ere, alderantziz, azaldutako argudio juridikoen arabera, eztabaidagarria izango litzateke ondare baten kudeaketa erakunde publikoaren kontrolpean ez dagoenean zuzenean besterendu ahal izatea.

Kasu horretan, sozietatea eratzen hasten den unetik eta/edo dagozkion erabakiak hartu eta berehala, Udalak eta haren sozietate instrumentalak dagoeneko adostuta daukate ondare horren berehalako xedea lursailak hirugarren merkataritza sozietate bati besterentzea izateko nahia; hirugarren merkataritza sozietate horretan sozietate publiko instrumentalak bermatuta duen posizio bakarra gutxiengoaren partaidetza dela (kapitalaren % 20, Udalak eta Administrazio Kontseiluko kide batek hala nahita).

Hori da kontua, hau da, Udalaren partaidetzak nola jarduten duen, sozietate instrumentalaren bidez, "San Ginés de Labastida, S.A." sozietatean. Eskura dugun informazioaren arabera eta 2005eko otsailaren 14an sozietate publikoak eginiko Batzar Nagusiak adostu zen akziodunen itunaren arabera (sozietate hori 2005eko otsailaren 2an sortu zen, Udalbatzak 2005eko urtarrilaren 21ean emandako ahalmenaren arabera), hau nabarmendu behar da:

- Sozietate instrumentalak, hasieran, sozietate anonimoaren akzioen % 20 harpidetu zituen.
- Bermatuta zuen nahitaez egin beharreko ondoz ondoko handikuntzetara joateko eskubidea, % 20ko proportzionaltasuna mantenduta.
- Akzioen harpidetza diruzkoak ez ziren ekarpenen bidez egin zen, hau da, sozietate publikoak zituen ondasunak besterenduta.
- Ondare ondasun horiek, beraz, sozietate anonimoaren titulartasuneko izatera pasa dira.
- Sozietate publikoak, prozesu osoaren amaieran, bere ekintzak harpidetuta dituen akzioen balioa duten udal intereseko instalazio edo lanen

gauzapenarekin edo finantziarioarekin trukatu ahal izango ditu, berdinbanaketako proiektua onartu ondoren, eta eremuko jabeetako bakoitzari eta bereziki sozietate anonimoan esku hartzen duten bazkideei emandako aprobetxamendu eta kargen berri izan ondoren.

- Azkenik, proiektua gauzatu ahal izango ez balitz edo egin ondoren erabat edo partzialki erabiliko ez balitz, edo “San Ginés Labastida, S.A.” merkataritza enpresaren porrota edo ordainketa etendura gertatuz gero, beharrezkoak diren neurriak hartu edo beharrezkoak diren itunak egingo dira udal sozietateak emandako ondasun guztiak kargarik gabe udal ondarrera itzultzeko.

Beraz, ondare ondasunak “San Ginés Labastida, S.A.ri” besterendu zaizkionez, tokiko sozietate publikoak dagoeneko ez dauka ondasun horien gaineko kontrolrik, baizik eta harpidetutako akzioen % 20ri dagokien eskubidea bakarrik, hau da, dagoeneko ez du ondasun horien gaineko baliatze ahalmenik. Azken finean, udal ondasunak Udalaren kontrolpean egotetik sozietate anonimo baten titulartasuneko izatera pasa dira; eta udal sozietateak gutxiengo posizioa dauka bertan. Sozietate anonimo hori da berezko nortasun juridikoa duen erakunde gisa ondasunen titulartasuna eta erabilera izango dituen.

Proiektua aurrera ateratzen ez bada bakarrik berreskuratu ahal izango ditu sozietate publikoak kargarik gabeko ondasunak, hala hitzartu baitute. Akziodunen itunean aurreikusten diren sozietatearen porrota edo ordainketa etendura gertatuz gero, itundutakoa betetzeko, gainerako akziodun pribatuek itundutako konpromisoa behar bezala beren gain hartuko dutela bermatu beharko litzateke (ez dakigu nola gauzatu den konpromiso hori), izan ere, horren eraginkortasunak talka egin dezake beren aldeko merezimendudun kredituak dituzten sozietate anonimoaz kanpoko hirugarrenen eskubideekin.

Ondorio hori, sozietate publikoak besterendutako ondasunen gaineko kontrolrik ez duela, alegia, ez dago kontraesanean sozietate anonimoak jarraitzeko interesik ez badu bere garaian gainerako bazkideek haren akzioak erostearekin, espezetan ordainduta, hau da, udal intereseko lanak gauzatu edo finantzatzearen bidez. Izan ere, nolana ere, ondasunen besterentzea dagoeneko eginda dago akzioak eskuratzen dituenetan eta proiektuak aurrera egiten badu ere ez du emandako ondasunak edo, hala badagokio, berdinbanaketaren ondoren dagokiona berreskuratzeko aukerarik izango, ezta haren intereseko izanda ere. Ez da gauza bera hirigintzako kudeaketan eta betearazpenean emandako ondasunen % 100

izatea eta ondasun batzuen gaineko gutxiengoaren partaidetza izatea, beste bazkide batzuekin lehian.

Azkenik, aztertu behar da ea merkataritzako udal sozietate publikoak publizitate eta lehia printzipioetara egokitzeko betebeharra zuen bere ondare ondasunak eman dizkion beste sozietate bateko bere partaidetza hautatzeko orduan, akzioen % 20ren harpidetzaren truke. Oro har, udal sozietateak bere kontratu jarduera publizitate eta lehia printzipioei lotzea aurreikusten du, bere garaian Estatutuekin batera onartutako kontratazioa arautzen duen araudian aurreikusi bezala, nahiz eta ez den berariaz ezer adierazten araudi hori berezko ondare ondasunen kudeaketari aplikagarri izateko aukerari dagokionez; ezin da ahaztu horrek osatzen duela sozietatearen ia kapital osoa.

2004ko abenduaren 29an onartutako antolaketari eta alderdi ekonomiko eta finantzarioei dagokien memoriaren arabera, tokiko merkataritza sozietatearen ondare araubideari dagokionez, berariazko erregulaziorik ezean, doktrina ez da baketsua. Azaldu duenez, badira tokiko erakundeen ondasunen inguruko administrazio arauak aplikagarritzat hartzen ez dituzten doktrina posizioak.

Bestalde, Udalak sozietateari emandako ondasunei (ez, ordea, sozietateak merkataritza trafikoa eskuratutako ondasunei) administrazio araubide publikoa aplikagarri izango litzaiekeela iruditzen zaien beste iritzi batzuk ere badirela adierazi du, bide hori baliatuz legez aurreikusitako kontrolak saihestea ekiditeko xedez. Jarraian, hau azaldu du:

“Ildo horretan, TAOLren 85 ter 3 artikulua arabera, tokiko merkataritza sozietateei aplikagarri izango zaie kontratazio publikoko araubide juridikoa, har ezarri bezala, eta horrela HAKLren testu bateginak adierazten du kanpo geratzen direla administrazio kontratazio arauak, baina haiek sektore publikoan integratzeak kontratu pribatuei dagokienez kontratu jarduerak publizitate eta lehia arauak onartu behar izatea dakarrela. Era horretan, sozietateak berak zehatz ditzake diskriminaziorik eza, berdintasuna, publizitatea, gardentasuna eta lehia printzipioak errespetatzen dituen bere kontratazio prozedura propioak.”

Memorian adierazitakoa ikusita, ondoriozta liteke sozietateak Udalak emandako ondare ondasunen kudeaketa kontratu pribatuei aplikagarri zaizkien administrazio prozedurako araei lotuko diela, hau da, publizitate eta lehia printzipioak errespetatzeari, baldin eta egin beharreko eragiketaren izaera printzipio horiekin bateraezina ez bada (Herri Administrazioen Kontratu

buruzko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarria).

Tokiko sozietate publikoak, 2005eko otsailaren 14ko bileran, “San Ginés de Labastida S.A.” merkataritza enpresak akzioak eskuratzeko eginiko eskaintza onartzeko erabakia hartu zuen, sozietatearen kapitalean partaidetza izateko. Erabakiak berak barne hartzen du akziodunen ituna; bertan jasotzen da sozietate anonimoaren helburu soziala, besteak beste, golf zelaiak eta bestelako kirol instalazioak eraiki, ustiatu, erabili, sustatu eta mantentzea dela. Horretarako, golf zelaia ezartzeko beharrezkoak diren azterlanak egin ditu. Ondorioz, ordezkaturako bi merkataritza enpresen interesek bat egin dutenez, udalerriko golf zelaia sustatu eta garatzean datzan garapen turistiko eta ekonomiko posiblearen arabera, aurrez aipaturako akziodunen ituna izenpetu dutela adierazi du.

Hortaz, hartutako erabakiak aurkeztutako eskaintzari eta bi sozietateen interesen bat egiteari erantzuten die, nahiz eta ez duen azaltzen zergatik tokiko sozietate publikoaren iritziz, Udalaren erakunde instrumental izaera kontuan hartuta, ez zegoen behartuta lehia eta publizitate prozedura bat onartzera.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu ez dela justifikatuta geratu sozietateak horren inguruan hartutako erabakia, nahiz eta ikuspegi juridikotik erabakia berraztertu ahal izateak zailtasun honekin topo egiten duen: era honetako sozietateen berezko erregulazioari loturiko merkataritza erakunde batek hartu ditu erabakiak, ez administrazio zuzenbideari loturiko batek.

Azkenik, golf zelaiaren eta dagokion egoitza eskaintzaren etorkizuneko garapenaren eraginpeko eremuan, udal administrazioaren lehiaketarekin, orubeak eskualdatzeko eragiketa ugarien izaera espekulatiboaren inguruan ikerketa egin izanari buruz kexan planteatutakoa aipatu behar da. Horri dagokionez, adierazi behar dugu erakunde honek ez duela inolako aukerarik ildo horretan ikerketa bat bideratzeko, erreklamatzailerik dagokien instantzia judizialetan jarduketa bideratzeko eskubidea baliatzearen kaltetan izan gabe.

Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

9/2008 GOMENDIOA, apirilaren 25ekoa, Bastidako Udalari egina.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) berraztertzeko eta egokitzeko hirigintzako espedientearen egungo izapidetze fasean publiko interesdunari parte hartzeko aukera ematea eta aurreko gogoetetan azaldu bezala planteatutako edo planteatu daitezkeen alegazioei eta plangintza alternatibei erantzun arrazoitua ematea.